

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

59

2320/2021 EBAZPENA, abenduaren 7koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Carlos Valdés García jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko Zerbitzu Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentearen maiatzaren 20ko 1017/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko, lehiaketa bidez. (2021eko uztailaren 26ko EHAA 148 zk. eta 2021eko abuztuaren 3ko BOE 184. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Carlos Valdés García jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESiko Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Carlos Valdés García jauna Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESiko Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioak izango ditu 2021eko abenduaren 1etik.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak, aipatutako epea amaitzean, lanpostua utziko du, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESleri.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2021eko abenduaren 7a.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.